

## BERGARAKO UDALA

**Begarako Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dauden bi gizarte langileren plazak jabetzan betetzeko deialdia.**

### **Oposizioaldiaren inguruko jakinarazpena**

Deialdi honetan parte hartzeko eskaera egin dutenei jakinarazten zaie epaimahaia osatu eta honako erabakiak hartu dituela:

1.-Oposizioaldiko lehen ariketa izaera teorikoa duten bi atalek osatzen dute eta horiei dagokienean hartu diren erabakiak hauek dira:

- Bi ariketei dagokienean aukerako erantzunak ematen dituzten galdera-sortekin osatutako probak izango dira (eranskin bakoitzetik bana).
- Bi ariketak egun berean egingo dira eta lehena gainditzen ez dutenei ez zaie bigarrena zuzenduko.
- Ariketa egingo da **EKAINAREN 23an GOIZEKO 11:30ean**, UNEDek Bergaran San Martin plazan duen egoitzan.

2.- Oposizioaldiko beste ariketen hurrenkera aldatu ahalko da eta ariketa teorikoaren emaitzekin batera emango da jakitera zein egingo den hurrengo eta noiz.

3.- Egin beharreko ariketen artean ahoz edo banan-banan egin beharreko ariketarik balego, zozketa bidez erabaki da lehen abizena **"I" letraz** hasten zaien izangaiekin hasiko direla.

4.- Oposizioaldiko ariketa guztiak edo prozesua bera abuzturako bukatuko ez balitz, jakinarazten da abuztuan ez dela egingo inongo ariketarik egingo ezta beste jardunik ere, eta prozesuko epeei begira "baliogabea" (inhábil) aitortzen dela.

Begara 2021eko ekainaren 1ean

Epaimahairen idazkariak

